

Leioan, 2013ko urtarrilaren 28an

LAN BALDINTZEEN EBALUAZIOA: ARRISKU PSIKOSOSIALAK

Lankidea;

UPV/EHUK erabaki du langile guztien arrisku psikosozialak ebaluatzen hastea. Helburua hainbat alderdi aztertzea da, besteak beste: lanaren antolakuntza, egiten den eginkuzunaren eskakizunak eta langileen ongizate eta osasunean eraginik izan dezaketen harreman sozialak, etorkizunari begira prebentzio-neurriak ezartzeko.

Ebaluazioa bi fasetan egingo da: lehenengoan, galdesorta bat bete beharko da (2013/2/1tik 2013/4/30era bitartean), eta bigarreanean, langileei emaitzen berri eman eta egoki diren neurriak jarriko dira martxan (2013/5/1etik 2013/12/31ra bitartean).

Galdeketa anonimoa izango da. UPV/EHUKo plantillako langile bakoitzak 2013ko otsailaren lehenengo astean jasoko du mezu elektronikoa bat, istas-noreply@sgs.com helbidetik, galdesortarekin eta ausazko pasahitza izango duen erabiltzaile batekin, **horrela ez da jasotzailearen eta erabiltzailearen arteko loturarik erregistratuko.**

Garrantzitsua da mezu hori EZ ezabatzea, EZ baita bigarren mezurik sortuko, langile bakoitzak galdeketa bakarrari erantzun diezaion.

Badago galdeketari on-line erantzuterik edozein ordenagailutatik edo modu presentzialaren bitartez — horretarako erreserbatutako geletan, lan taldeko kide baten laguntza izango da—, edo on-line bidez edo paperezko formatuan. Erreserbatutako gelak, egunak eta orduak ondoko helbidean kontsultatu ditzakezu: www.ehu.es.

Baduzu informazio gehiago zure esku, hala nahi izanez gero, UPV/EHUren orri nagusian eta posta elektronikoaz jo dezakezu lantaldearengana (riesgospsicosociales@ehu.es edo arriskupsikosozialak@ehu.es) zure intereseko alderdiez galdetzeko.

Eskerrik asko. Ondo izan.

Arrisku Psikosozialen Ebaluaziorako Lantaldea

LAN INGURUNE OSASUNGARRIA IZAN DEZAGUN, PARTE HARTU!